

# HAU DANIEL DA

## Orain IKUSEZINA da



Ez du eskubideak erabiltzeko aukerarik.  
Baina hori ez da beti horrela izan.

### NOLA IRITSI ZEN DANIEL EGOERA HONETARA?

### HONA HEMEN BERE ISTORIOA

- ✓ 15 urterekin, Danielek Afrika zeharkatu zuen, bakar-bakarrik.
- ✓ Etorkizun hobe baten bila, berarentzat eta bere izeba gaixoarentzat.
- ✓ Autonomia-erkidego batek babespean hartutako adingabea zen.
- ✓ Ikasle ona da. DBH gainditu zuen.
- ✓ Gradu ertaineko ziklo batean izena eman zuen.
- ✓ Futbol klub bateko gazteen talde batean jokatzen du.

- ✗ 18 urte betetzean, ordura arte bizileku izandako babespeko zentroa utzi behar izan zuen.
- ✗ Daniel kalean gelditu zen.
- ✗ Lan-baimenik gabe.
- ✗ Osasun-txartelik gabe.
- ✗ Aukerarik gabe. **PAPERIK GABE.**



**DANIEL**  
19 AÑOS, CAMERÚN

Zer gertatuko zen haren azterketekin? Eta futbol taldearekin? **Danielek bere ingurunea utzi behar izan zuen, eta lagunengandik urrundu.**

### INOIZ EZ ZEN HAIN ABANDONATUTA EGON

Ez zekien lo non egingo zuen, zer jango zuen... **Ez zekien bizibidea nola aterako zuen aurrera, ez eta zer gertatuko zitzaien ere handik aurrera.**

“

“Lege-egoera irregularrean egoteak ez du aukera ematen emigratzaileen duintasuna gutxitzeko, eskubide besterezinak baititu, urratu eta baztertu ezin direnak.”

Joan Paulo II, aren mezua, Emigratzaileen Nazioarteko Jardunaldia, 1. eta 2. puntuak (1995).

## DANIEL ZURE AUZOKIDEA DA

### Ikusarazi al dezakegu?

18 urte betetzeak eta kontratua izan edo ez izateak...

**Honek izan behar al du bere eskubideak lortzeko zabaldu edota ixten duen atea?**

## ETA GURE KOMUNITATEAN EGINDAKO ERROAK IZANGO BALIRA DANIEL IKUSARAZTEKO BERMEA?

